

# ENPLEGU ETA GIZARTE BERRIKUNTZARAKO EUROPAR PROGRAMA (EASI) (2014-2020)

## ERREFERENTZIA

Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Programa (EaSI) 2014-2020. (Europako Batzordea. Enplegua, Gizarte Gaiak eta Inklusioa ZN).

## HELBURUAK

Programaren xedeak enpleguaren sorkuntza laguntzea eta Europar Batasunaren zehar gizarte-politika eta mugikortasuna erraztea dira, gazteria bezalako talde ahulenetan arreta berezia jarriz. Zehazki, programaren esparruan, kalitatezko enplegu jasangarriaren sorkuntza, gizarte-babes egoki eta duin baten bermea, gizarte-bazterketa eta pobreziaaren aurkako borroka eta lan baldintzen hobekuntza sustatuko dira.

## EKINTZAK

Programa hiru ardatzetan banatzen da:

1. **"Progress"** ardatzak enpleguaren alorrean EB-ren politika eta baliabideen garapena, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa babestuko ditu, bereziki, gazte langabeziaren aurkako borrokarako, gizarte-babesarako, gizarteratzea eta pobreziaaren murriztapena eta prebentziorako eta, lan baldintzen hobekuntzarako. Ildo honetan, honako ekintza motak finantziatuko dira: analisi jarduerak (datu bilketa, estatistikak, metodologia garapena, inkestak, azterlanak, ebaluaketak...); elkarrenganako ikaskuntzarako jarduerak; sentsibilizazioa eta zabalkundea (jardunbide egokien hartu-emanak, hitzaldiak, mintegiak, profesional juridiko eta politikoen trebakuntza, informazio eta komunikazio jarduerak...); eta sareen funtzionamendutik, administrazioek duten gaitasunen errefortzutik, lantaldeen antolaketatik eta sareen sorkuntzatik erator daitezkeen gastuei laguntza.
2. **"EURES"** ardatzak Europar Batasunaren barruan pertsonen mugikortasun zuzena sustatzen duten eta mugikortasun oztopoak ekiditzen dituzten ekintzak babesten ditu. Zehazki, EURESeko mugaz haraindiko elkarrenganako garapena eta hauen jarduerak; informazio, aholkularitza eta mugaz haraindiko langileen lanpostu eta kontratazio zerbitzuak ematea; enplegu eskaintza eta eskaerak orekatzeko plataforma digital eleanitz baten garapena; berariazko mugikortasun planen garapena; EURES eragileen elkarrenganako ikaskuntza eta EURES aholkularien trebakuntza; eta informazio eta komunikazio ekintzak finantziatuko dira.
3. **"Mikrofinantziaketa eta gizarte-ekintzailtza"** ardatzak pertsona fisiko zein juridikoei finantziatorako sarbidea eta honen erabilgarritasuna bermatzen du.

## ONURADUNAK

**Progress ardatza:** Aginte publiko nazionalak, eskualdekoak eta lokalak, enplegu zerbitzuak, EB-eko legedian aurreikusten diren erakunde espezializatuak, eragile sozialak, gobernuz kanpoko erakundeak, goi-hezkuntzako erakundeak, ikerketa zentroak, ebaluaketetan adituak, estatistikako instituto nazionalak, komunikabideak.

**EURES ardatza:** Aginte nazional, eskualdekoak eta lokalak, enplegu zerbitzuak, eragile sozialak eta beste agente batzuk.

**Mikrofinantziaketa eta gizarte-ekintzailtza ardatza:** Erakunde publiko edo pribatu nazional, eskualdekoak eta lokalak.

## AURREKONTUA

9.469.000 euro

## GAUZATZE ALDIA

2014-2020

## **INTERESEKO ESTEKAK**

[Araudia \(EB\) 1293/2013 zbk. Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Programaren inguruan](#)  
[Enplegua, Gizarte Gaiak eta Inklusioa ZN](#)

## **INFORMAZIO GEHIAGO**

### **Europako Batzordea**

Enplegua, Gizarte Gaiak eta Aukera Berdintasuna ZN

DG EMPL/B.1. J-54 01/004

Rue de Loi, 200

B-1049 - Brusela

[empl-vp-industrial-relations@ec.europa.eu](mailto:empl-vp-industrial-relations@ec.europa.eu)

## **ERABILERA KIROLEAN**

Adibidez, honako proiektu mota hauek aurkeztu daitezke:

- Enpleguaren egoera kirol munduan aztertzekeo proiektuak, pertsonen enplegarritasuna nola hobetu, etab.;
- Ikasketa konparatiboak, erakustaldiko proiektu pilotuak barne;
- Administrazioen arteko lankidetzaren garatzeko proiektuak, kirol sektorean dauden pertsonen trebetasunak hobetzeko;
- Politika publikoen aplikazioa sektorean hobekuntzak aztertzekeo, egiaztatzekeo eta baliozkotzekeo zuzendutako proiektuak.